

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 47/2017 Erabakia, urtarrilaren 31koa, erantzuten dituen Caicedo Yuso eta Arreo lakuko ES2110007 KBEko (kontserbazio bereziko eremua) eta Añanako diapiroko babestutako biotopoko zuzentarau eta neurrien hasierako agiriari jendaurrean egon den bitartean aurkeztutako alegazioak eta behin betiko onartzen duena hasierako agiri hori, Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 31ko 85/2016 Dekretuan xedatutakoetarako

Eusko Jaurlaritzaren 1997ko abenduaren 23ko, 2000ko azaroaren 28ko eta 2003ko ekainaren 10eko erabakien bitartez, Arabako Foru Aldundiarekin bat etorritik, Arabako 25 gune proposatu ziren Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izendatzeko. Proposamen hori Europako Batzordeari aurkeztu zitzaion, eta hark onetsi egin zuen, 2006/613/EE Erabakiaren bitartez, eskualde biogeografiko mediterraneoari dagozkion Batasunaren Garrantzizko Lekuen (BGL) zerrenda, zeinean ES2110007 Arreo-Caicedo Yusoko aintzira Batasunaren Garrantzizko Lekua (BGL) ere sartzen baitzen.

Orobat, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko sailburuaren 2004ko otsailaren 24ko Aginduaren bitartez, hasiera eman zitzaion Añanako Diapiro izeneko eremuko Baliabide naturalak antolatu eta arautzeko Plana egiteko prozedurari, eta plan horren barnean hartu ziren Gesaltza Añanako Gatz Haraneko hezeguneak eta Arreo-Caicedo Yusoko aintzira.

Ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Herriko natura babestekoak, zeinaren testu bateratua apirilaren 15eko 1/2014 Legegintza Dekretuak onartu zuen, bere 13. artikuluan Natura 2000 Sarea (Batasunaren garrantzizko lekuak — BGL —, hegaztientzako babes bereziko eremuak — HBBE — eta kontserbazio bereziko eremuak — KBE —) sartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko natura gune babestuen sarean beste kategoriatan baten modura.

Bat etorritik Kontseiluaren maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauak, habitat naturalak eta basa fauna eta landaredia zaintzeko buruzkoak, 4. artikuluan eta abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, natura ondare eta biodibertsitatearenak, 44. eta 45. artikuluetan xedatutakoarekin, autonomia erkidegoek, jendaurrean jartzeko prozeduraren ondoren, BGL guztiak kontserbazio bereziko eremu (KBE) aitortuko dituzte, eta beharrezko zaintze neurriak ezarriko dituzte, eremu horietan dauden habitat natural moten eta espezieen eskakizun ekologikoei erantzuten dietenak. Kontserbazio neurriek berekin ekarriko dituzte kudeatze plan edo tresnak eta erregelamendu, administrazio edo kontratu neurriak.

Hala, bada, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren maiatzaren 31ko 85/2016 Dekretuaren bidez, ES2110007 Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu zen Arreo-Caicedo Yusoko aintzira dagoen lekua, eta biotopo babestutzat jo zen Añanako diapiroaren eremua. Onartu ziren, halaber, eremu horiek onik zaintzeko neurriak eta helburuak, bai eta erabilera eta jardueretarako araudiak ere (EHAA, 159. zk.a, 2016ko abuztuaren 23koa).

85/2016 Dekretu horrek, 3.3 artikuluan, honela dio: “Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzaren Erabakiaren bidez, Dekretu honen eranskin gisa, Arabako Foru Aldundiak eremu hau kudeatzeko onartu dituen zuzentarauak eta neurriak argitaratuko dira, Euskal Herriko natura babesteko Legearen testu bateratuaren 22.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.”

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren irailaren 30eko 234/2016 Foru Aginduaren bidez KBE eta biotopo izendatzeko prozesu horretan, hasierako onarpena eman zitzaion bi gune

horien “Kudeaketa Zuzentarau eta Neurriak” izeneko agiriari, zeina entzunaldiko izapidean eta jendaurrean jarri baitzen bi hilabetez.

Jendaurrean egon zen eta entzunaldiko izapideak iraun zuen bitartean, alegazio idazki bakar bat aurkeztu zen, hain zuzen ere erakunde honek:

— Gatz Harana Fundazioa, erregistroan 2016ko azaroaren 11n sarrera izan zuen idazkia.

Agiria aztertuta, Natura Ondarearen Zerbitzuko Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalak txostena idatzi zuen erakunde horrek aurkeztutako alegazio eta iradokizunei erantzunez, haie-tako batzuk onartuz eta, ondorioz, kudeaketa agiriari beste idazketa bat emanez.

Erabaki honek osorik onartzen du aipatutako txostena.

Natura Ondarearen Zerbitzuko Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalaren txostena ikusi da. Txosten horretan aipatutako alegazioei erantzuten dien agiria jasotzen da, bai eta proposatu ere babestutako naturagune horren kudeaketa zuzentarau eta neurriak behin betiko onartzea ere.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia azertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

LEHENENGOA. Erantzutea Caicedo Yuso eta Arreoko aintzirako KBeko (ES2110007 kontserbazio bereziko eremua) eta Añanako diapiroko babestutako biotopoko “zuzentarauak eta neurriak” izeneko hasierako agiria jendaurrean egon den eta haren entzunaldi izapideak iraun duen bitartean aurkeztutako alegazioei, Natura Ondarearen Zerbitzuko Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atalaren txostenak adierazitakoak bere horretan baietsiz edo ezetsiz. Txosten hori bere egiten du oso-osorik ebazpen honek, eta haren edukia eta ebazpen hau batera jakinaraziko zaizkie erakunde interesdunari.

BIGARRENA. Behin betiko onartzea Caicedo Yuso eta Arreoko aintzirako KBeko (ES2110007 kontserbazio bereziko eremua) eta Añanako diapiroko babestutako biotopoko kudeaketa zuzentarau eta neurrien agiria. Naturagune horiek KBE (Kontserbazio Bereziko Eremu) eta babestutako biotopo izendatu ziren, hurrenez hurren, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko maiatzaren 31ko 85/2016 Dekretuaren bidez (EHAA, 159. zk.a, 2016ko abuztuaren 23a), kudeaketa agiriari III. eranskin gisa atxikitzeko, aipatutako dekretuaren 3.3 artikuluan eta azken xedapenetatik lehenengoan adierazitako moduan.

HIRUGARRENA. Kudeaketa zuzentarauak eta neurriak agirian jasotako kudeaketa neurriak gauzatzeko zuzkidura ekonomikoak kasuan kasuko aurrekontuekin onartuko den aurrekontu erabilgarria egotearen baldintzapean daude, eta, edozein kasutan ere, agiri horretako kalkulu ekonomikoa 92/43/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan aipatutako kofinantzaketa komunitarioari dagokionez beharrezko irizitakorako egiten da.

LAUGARRENA. Erabaki hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

BOSGARRENA. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 31

Diputatu nagusia


RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTIN



III. eranskina ES2110007 Caicedo Yuso eta Arreoko aintzira KBE / Añanako Diapíroko Biotopo Babestua.
2017ko urtarrila

1

**III. eranskina - KONTSERBAZIO GIDALERROAK ETA NEURRIAK****AURKIBIDEA****1. SARRERA****2. KONTSERBAZIO GIDALEORRAK ETA NEURRIAK, FUNTSEZKO ELEMENTU EDO KUDEAKETA XEDEEI BEGIRA**

2.1. UR GEZAKO HABITATAK ETA LOTURIKO ESPEZIEAK

2.2. AINTZIRAKO ITURBURU GAZIA ETA LOTURIKO HABITATAK ETA ESPEZIEAK

2.3. GATZ HARANA ETA LOTURIKO HABITATAK ETA ESPEZIEAK

2.4. BAZKAK ETA SASTRAKAK ETA LOTURIKO ESPEZIEAK

2.5. *QUERCUS* GENEROKOEN BASOAK ETA LOTURIKO ESPEZIEAK**3. KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK**

3.1. BIODIBERTSITATEARI BURUZKO EZAGUTZA ETA INFORMAZIOA

3.2. HERRITARREN KOMUNIKAZIOA, HEZIKETA, PARTAIDETZA ETA KONTZIENTZIAZIOA

3.3. GOBERNAMENDUA

3.4. BESTE JARDUKETA TRANSBERTSAL BATZUK

4. JARDUKETEN KOSTUAREN GUTXI GORABEHERAKO ZENBATESPEN EKONOMIKOA

1. SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko Legeak —testu bateratua apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen— mekanismo jakin bat zehazten du espazioen babes figurak, Europar Batasuneko araudiaren babesean, zehazki, Natura 2000 Sarean jasotako naturagune babestuekin lotuta, sortuak, aztertzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko Legeak, 22. artikuluko 5. idatz zatian, babes bereziko zonen deklarazioaz hau adierazten du: *"Lurralde historikoetako foru-organismoek kudeaketa-jarraibideak onartuko dituzte, kontserbazio-helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio-egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak"*.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren maiatzaren 31ko 85/2016 Dekretuaren bidez, Caicedo Yuso eta Arreoko aintzira ES2110007 KBE babes bereziko zona izendatu eta Añanako diapiroko biotopo babestua dela adierazi zen, baita kontserbazio neurriak eman ere.

Dokumentu honetan, ES2110007 Caicedo Yuso eta Arreoko aintzira KBE eta Añanako diapiroko biotopo babestua kudeatzeko arauak eta neurriak ezartzen dira, 85/2016 Dekretu horretan ezarritako kontserbazio helburuetan oinarrituta.



2. KUDEATZEKO GIDALEORRAK ETA NEURRIAK, FUNTSEZKO ELEMENTU EDO KONTSERBAZIO XEDEEI BEGIRA

2.1. Ur gezako habitatak eta loturiko espezieak

1. Azken helburua	Caicedo Yusoko aintzirako ur gezako habitaten potentzial ekologikoa suspertzea, zohikaztegi orlak, lezkadiak eta erriberako landaredia barne, hezegunearen egoera ekologiko ona lortzeko, habitata intereseko hegazti espezieentzat egokiagoa izan dadin.
1.1. Helburu operatiboa	Karramarro amerikarrak eta dauden arrain espezie exotikoei sortzen dituzten eragin negatiboak nabarmen murriztea.
Jarduerak	1. LIFE "Tremedal" proiektuaz hasitako karramarro gorri amerikarra harrapatze kanpainak analizatzea eta, hala badagokio, horiekin jarraitzea. 2. Arrain fauna exotikoa deskastatzeko eta kontrolatzeko kanpainekin jarraitzea. 3. Arrain-fauna espaziotik erauzteko muturreko ekintzak egiteko aukera aztertzea eta, hala badagokio, gauzatzea. 4. Aintzirako iparraldeko ezpondaren eboluzio naturala eta horrek aintzira ontzian eta perimetroko bidean duen ondorea behatzea. Hala badagokio, ondorioak txikiagotzeko beharrezkoak diren neurriak aztertzea. 5. Sedimentuak dragatuz eta intereseko makrofitoak eta ur flora ekarri, berriro sartuz edo indartuz espezie exotiko inbaditzaileak kanporatzeko neurriak hartzeko aukera ebaluatzea eta, hala badagokio, gauzatzea.
1.2. Helburu operatiboa	Ingurunekeko laborantzek sortutako mehatxu faktoreak saihestu eta murriztea.
Jarduerak	6. Abandonatzen diren eta LIFE "Tremedal" proiektuan naturalizatzen ari diren nekazaritza zonetan, aintzirako inguruetan, higaduraren aurkako neurriak aztertu eta diseinatzea. 7. KBEn dagoen nekazaritza ustiategi bakoitzerako birmoldaketa plan bat egitea, abiapuntuko egoera zorrozki analizatuz, lortu nahi diren helburuak definituz eta birmoldatzeko behar den denbora ezarri. 8. Erlezaintza eta nekazaritza ekologikoa sustatzea, nekazarietarako prestakuntza espezifikoko jardunaldiak, KBeko agroekosistemako laborantza motetara, arazoetara eta aukera zehatzetara egokituak, eginez.

III. eranskina ES2110007 Caicedo Yuso eta Arreoko aintzira KBE / Añanako Diapiroko Biotopo Babestua.
2017ko urtarrila

Jarduerak	9. Ustiategi bakoitzerako alderdi espezifikoak dituen lurraldeko kontratu sistema bat ezartzea, nekazaritza eta ingurumen neurri espezifikoak, ingurumen zerbitzuengatik ordainketak eta KBEn eta biotopo babestuan dauden nekazaritza ustiategietarako pizgarriak ezartzean oinarritua, helburu hauekin: -a. Fitosanitario eta ongarri ez organikoen erabilera murriztea, laborantza sistema ekologikoak, biodinamikoak edo integratuak ezartzeko asmoz. -b. Lugarri ereinak mantentzea, gutxienez, udazkenean eta neguan, ahal bada lekadunekin edo kruziferoekin. -c. Lurzatieta eta landaredi naturaleko zonetan abandonatutako nekazaritza hondarrak eta hondakinak kentzea. -d. Laborantzarik gabeko zerrendak sortzea KBek aintzirako errekan duen mugaren luzera osoan eta aintzirako uretan gora dagoen zona hezearen luzera osoan. -f. Harritzko hormatxoak eta beste elementu tradizional batzuk, hala nola heskai zuhaiztuak, berreskuratzea. -g. Epaitearen ostean uztondoak mantentzea.
1.3. Helburu operatiboa	Aintziraren ingurunean, errekan eta uretan gora dauden hezeguneetan landaredi orla naturala areagotzea, bai hedaduran bai babes mailari dagokienez.
Jarduerak	10.1 Aintzirako erreka ibilgua uretan gora egokitzea, sedimentuak eta solido esekiak atxikitzen dituzten espezieetako landaketarekin. 11. 7230 habitateko eboluzio libreko zonaren jarraipen aktiboa egitea. Interes gutxiagoko beste espezie edo komunitate batzuen belar-sastrakak kentzea edo horiek deuseztatzea, azalera handitzeko. 12. Aintzirako zona hezeetako kanpoko orletan eta errekan, ur ibilbideei eta zona hezei loturik ez dagoen belar, zuhaixka eta zuhaitz landarediaren kontakutuan, erriberako landaredia leheneratzeko proiektuak diseinatu eta gauzatzea. 13. Arreko zohikaztegi hezeen zonako ingurunean kokatuta dauden nekazaritza lurzatieta lurren jabeekin akordio espezifikoak sustatzea edo horiek erostea, kudeaketa partekatuko gutxienez 20 metroko zerrenda bat erdiesteko, landaredi naturalaren egungo kanpo mugatik. Produktu fitosanitarioen eta ongarrien aplikazioa, laborantzarik eza eta landaredi naturalerako birmoldaketa kenduko dira.
1.4. Helburu operatiboa	KBEko erabilera publikoak eta azpiegiturak espezieen eta habitaten gainean etorkizunean sortu ahal dituzten eraginak saihestea.
Jarduerak	14. 7230 habitateko eboluzio libreko zonako hegoaldeko muga heskai zuhaiztu arantzaunak landatzea pertsonak zona horretan sartzea galarazteko.



Jarduerak	15. Seinaleztapen eta informazio sistema optimizatzea, seinaleztapen elementuak ahalik eta gehien murrizteko eta biltzeko asmoz, grafia eta diseinu koherenteak erabiliz erabiltzailea ez nahasteko eta informazio ez asetzeko eta seinaleztapen eta informazio sistema horien begi inpaktua murrizteko. 16. Interpretatzeko eta paisaiari buruzko seinaleztapen egokia eta osoa amaitzea KBE zeharkatzen duten ibilgailuetarako bideen luzera osoan, GR delakoan eta Aintzirako Andra Mariako aparkalekuan. Jorratu gabeko gaiak sartzeara, adibidez, larreak eta txilardiak, <i>Quercus</i> generokoen basoak, zohikaztegiak eta aintzirako iturburuko landaredi halofiloa. 17. Aintzirako Andra Mariako atsedengunea eta aparkalekua azpiegitura osagarriez hornitzea, hala nola bizikletetarako aparkalekuez, erabilerei, gomendioei eta tokiaren eta arkeologia hondarren gaineko informazioari buruzko kartekez. 18. Aintzirako mendealdeko muturrean hegazti behatoki txikia teknikoki ebaluatu eta, hala badagokio, gauzatea; GRtik iristeko modukoa izan beharko luke eta sartzeko eta irteteko bideak hesiez mugatuta egon beharko luke abifaunari eragozpenik ez sortzeko.
1.5. Helburu operatiboa	Aintziran dagoen ur kantitatea ziurtatzea eta haren dinamikaren gaineko eragin oro saihestea.
Jarduerak	19. Aintzirako erreka neurtzen jarraitzea, bai sarrerako puntuan bai irteerakoan, haren ur balantzea kontrolatzeko. 20. Aintzirako ur mailaren jarraipen etengabea egitea. 21. Aintzizarako isuri arroaren parametro meteorologikoak neurtzen jarraitzea, LIFE Tremedal proiektuan hasi den moduan. 22. Aintzirako uraren parametro fisikoak, kimikoak eta kalitatekoak, EAEko hezegune sarearen esparruan egindakoak, aldizka neurtzen jarraitzea.
1.6. Helburu operatiboa	Aintziran dauden intereseko espezieen populazioen kontserbazioari buruzko ezagutza maila hobetzea.
Jarduerak	23. 7210* eta 7230 habitaten zonen azterlan botaniko osoa egitea, <i>Ophioglossum vulgatum</i> eta <i>Berula erecta</i> espezieen populazioak eta kontserbazio egoera ere zehaztuz. 24. Lezkadiaren eta zohikaztegiaren arteko trantsizio zonetan kontrol lurzatiak kokatzea bi komunitateen arteko harreman ekologikoek denboraren poderioz nola eboluzionatzen duten zehazteko. 25. Odonatuei buruzko azterlan espezifikoak egitea, <i>Coenagrion mercuriale</i> espeziean arretoa berezia jarritz.

Jarduerak	26. Lezkari arruntaren, lezkari karratxinaren, tximutxaren, txilinporta txikiaren, murgil handiaren, uroilanda handiaren eta beste hegazti espezie batzuen urteroko zentsuak egitea. 27. Galeria basoaren kalitatea adierazten duten hegazti espezieen (dilindaria, lepitxulia, urretxoria, pizidoak oro har) aldizkako zentsuak egitea.
------------------	--

2.2. Aintzirako iturburu gazia eta loturiko habitatak eta espezieak

2. Azken helburua	Aintzirako iturburuan dauden habitat halofiloen kontserbazio egoera ona lortzea.
2.1. Helburu operatiboa	Landaredi halofiloko orlaren babesa eta hedadura areagotzea.
Jarduerak	13. eta 14. ekintzak aplika daitezke iturburu gazia babesteari dagokionez. 28. LIFE "Tremedal" proiektuari gehitutako zonetan gertatzen den landaredi segidaren jarraipena egitea eta, hala badagokio, intereseko habitaten komunitateen alde egiteko jardutea.
2.2. Helburu operatiboa	Nekazaritza jarduerak habitat halofiloetan sortzen dituen mehatxu faktoreak saihestu eta murriztea.
Jarduerak	1.2 helburu operatiborako planteatutako jarduketak aplika daitezke.
2.3. Helburu operatiboa	Habitaten osaera floristikoa eta dinamikoa eta haien mikrobanaketa zehatz-mehatz ezagutzea.
Jarduerak	29. Inbentario floristikoak eta landaredikoak egitea espezieen eta habitaten osaera, banaketa eta dinamika zein 1410 eta 1510* habitaten arteko harremana zehatz-mehatz definitzeko.

**2.3. Gatz Harana eta loturiko habitatak eta espezieak**

3. Azken helburua	Gatz Harana gatz konplexuaren arkitektura eta kultura ondarearen leheneratzea eta erabilera publikoa habitat eta espezie halofiloen kontserbazioarekin bateragarri egitea.
3.1. Helburu operatiboa	Flora halofiloaren garapenerako egokiak diren espazioak erreserbatzea.
Jarduerak	30. Gatz Haranean flora halofiloa eta 1510* habitata kontserbatzeko eta hobetzeko proiektu bat diseinatu eta gauzatzea, area interstizialak, iturburuen inguruneak eta Plan Gidatzailean ingurumen-erreserba bezala izena emanda larrainak, aprobetxatuz. 31. Dona Garazi, El Pico, La Hontana eta Fuentearriba iturburuen ingurunea egokitzea, Gatz Haraneko flora halofitoa edo berezia eta habitatak kontserbatu eta sustatzeko. 32. La Muera eta Bitoria erreketako ibilguak eta flora leheneratzea Gatz Haranaren eremuan.
3.2. Helburu operatiboa	Habitaten osaera floristikoa eta dinamikoa eta haien mikrobanaketa zehatz-mehatz ezagutzea.
Jarduerak	33. Gatz Haranari buruzko azterlan botaniko zehatzak eta jarraituak egitea, intereseko espezieak (bai Euskal Autonomia Erkidegoko Espezie Mehatxatuen Katalogoan jasota daudenak bai 1510* habitata definitzen dutenak eta antzekoak) zein lekutan dauden eta nola banatzen diren zehazteko. 34. Aztertutako putzu edo iturburuen inguruneke landaredi halofiloaren egoeraren ebaluazio espezifiko gehitzea EAEko Hezeguneen Jarraipen Sarearen urteroko jarraipenei. 35. Kanpoko identifikazioko seinaleztapen sistema, Gatz Haraneko erabilera publikorako prestaturiko egungo ibilbideari lotua, diseinatzea, flora halofiloko espezieak identifikatzeko. 36. Flora halofiloa interpretatzeko elementuak sartzea 69. jardueran KBE eta Biotopo Babestuko Interpretazio Zentroan.
3.3. Helburu operatiboa	Ornogabe halofiloen eta mikrobio tapizen dinamikak zehatz-mehatz ezagutzea eta horiek garatu eta ezartzeko egokienak diren mikroespazioak kontserbatzea.
Jarduerak	37. Gatz Haraneko mikrobio tapizei eta biofilmei buruzko azterlan espezifikoak egitea. 38. Ornogabe urtar halofiloak eta halobionteak interpretatzeko elementuak sartzea KBE eta Biotopo Babestuko Interpretazio Zentroan, baita akuario espezifiko bat diseinatu eta eraikitzea ere. 39. Interes handieneko ornogabe urtarren jarraipen espezifikoak egitea Gatz Haranaren eremuan eta uretan behera La Muera errekan.

2.4. Bazkak eta sastrakak eta loturiko espezieak

4. Azken helburua	Belardi eta sastrakadietako habitaten zein horien menpe dauden fauna espezieen kontserbazio egoera hobetzea.
4.1. Helburu operatiboa	<i>Brachypodium retusum</i> espezieko albitz belardien (6220*) eta larre mesofiloen (6210*) hedadura eta kalitatea areagotzea.
Jarduerak	40. Belar-sastrakak kentzea eta dauden zuhaitz oin guztiak kentzea dauden larreek azpizuhaiak edo zuhaiak zonen artean gune txikiak osatzen dituzten zonetan edo sastrakadi bihurtzeko prozesu nabaria erakusten duten larreetan, baita 4030 eta 4090 habitatak dituzten zonen kontura ere, KBEn. 41. 6220* eta 6210* habitatetarantz eboluzionatzen ari diren zona berrien gainean jarduketak egitea LIFE "Tremedal" proiektuan sartuta dauden eta 6210* habitata leheneratzea xede duten lurzatietan, espezie erruderal eta nitrofiloen epaiteak eta belar-sastraka kentze selektiboak barne hartuta. 42. Belar landarediko estaldura maila bat duten habitat suspertuko areak lortzea. 43. KBeko eta biotopo babestuko espazio irekiak mantentzeko larratze estentsiboko sistema bat diseinatzea, masa bakoitzerako egokia den azienda zama analizatuz. 44. KBEn eta biotopo babestuaren barruan diseinatutako larratzea larratze planaren arabera egiteko interesa duten abeltzainak bilatzea. 45. Larratze estentsiborako egokiak diren egiturak, hala nola edanlekuak, prestatzea.
4.2. Helburu operatiboa	Larre eta sastrakadien eta horien menpe dauden espezieen gaineko mehatxu faktoreak saihestu eta kentzea.
Jarduerak	46. Borondatezko ingurumen kontratuak sinatzea sustatzea larre eta sastrakadi lurzati pribatuak kontserbazio egoera egokian mantentzeko eta horiek egotearen ondoriozko ingurumeneko kanpo efektu positiboak saritzeko. Lurraldearen zaintzarekin zerikusia duten estrategiak bilatuko dira, bai KBEn bai biotopo babestuan. 47. Larreekin edo sastrakadiekin lotuta geratzen diren bideen eta errepideen trazadura hobetzeko eta kontserbatzeko jarduketak egiten diren zonetan, sastrakadiko ertzeko berezko espezieak dituzten ekotonoak ezartzeko ahaleginak egingo dira, hala nola gurbeak (<i>Sorbus domestica</i>), gereziondoak (<i>Prunus avium</i>), iparraldeko elorri zuria (<i>Crataegus monogyna</i>), basa arrosak (<i>Rosa spp.</i>) eta ipuruak (<i>Juniperus oxycedrus</i>), besteak beste. 48. KBEn nekazaritza lurzatietako mugetan hormak, ertzak eta heskai zuhaitzuak suspertzeko plana gauzatzea, zuhaixka arantzatsuak landatzea eta pausatze tokiak jartzea.



Jarduerak	49. 6210*, 4030 eta 4090 habitatetako leheneratze zonetan lurzoru egokien gainean jatorri autoktonoko <i>Cistus crispus</i> espeziearen landaketa sustatzea.
4.3. Helburu operatiboa	Habitat horien osaera floristikoa eta horien mende dauden hegazti populazioak zehatz-mehatz ezagutzea.
Jarduerak	50. Larreen eta txilardien "kalitate indize" bat definitu eta kalkulatzeko eta jarraipen planean txertatzea. Indize konposatu horrek gutxienez alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan: - Flora bereizgarriaren dibertsitatea, ugaritasuna, egoera eta joera (katalogo floristikoa oinarrituta). - Landarediaren estaldura % eta garaiera. - Espazio irekietako hegaztien egoera eta joera. - Espazio irekietako lepidopteroen ugaritasuna eta dibertsitatea. - Espazio irekietako narrastien ugaritasuna eta dibertsitatea. 51. Larre eta txilardi komunitateen espazio eta denbora bilakaeraren jarraipen protokolo bat ezartzea aireko irudiak analizatuz eta lurraldearen gaineko kontrola edukitzeko lurzatiak ezarritik. 52. Orkideen azterlana eta zentsua egitea belar eta zuhaixka habitaten zona mugatuetan. 53. Hegaztien habiagintzari buruzko azterlan espezifikoak egitea KBeko eta biotopo babestuko larre eta txilardietako landaredi zona guztietan, eta nekazaritza zonetan laginak hartzeko ibilbideez osatzea. 54. Egunko lepidopteroen jarraipena txertatzea agroekosistemaren egoera ekologikoaren bilakaeraren adierazle gisa. 55. Intereseko espezieak, esate baterako, orkideak, detektatzea eta 6210* habitataren, lehentasunezko interesekoaren, azpimota ondo zehazteko helburua duten azterlan botaniko zehatzak egitea. 56. Nekazaritza lurzatiaren jabeak eta KBeko eta biotopo babestuko auzotarrak eta bisitariak belardi eta txilardi espazioen garrantzi ekologikoaz eta ematen dituzten ingurumen zerbitzuez kontzientziatzeko jarduketak sustatzea.

2.5. *Quercus* generoko basoak eta loturiko espezieak

5. Azken helburua	<i>Quercus</i> generoko basoen, Europar Batasunaren Intereseko Habitatak baitira, kontserbazio egoera eta intereseko baso hegaztien espezieentzako egokitasuna hobetzea.
5.1. Helburu operatiboa	<i>Quercus</i> generoko basoen, Europar Batasunaren Intereseko Habitatak baitira, kontserbazio egoera eta intereseko baso hegaztien espezieentzako egokitasuna hobetzea.
Jarraibideak	D.1 Kalitatezko gatzaren ekoizpena babesteko eta iraunarazteko, Gatz Haranaren inguruan egindako basoberritzeak eta landatzeak kontuan izango dituzte erabili beharreko espezieak, lore hautsak edo polenak izan dezakeen eragina eta gatzak ekoizten den larrainetan eragotzi dezaketen hostoak.
Jarduerak	57. Zuhaitz edo zuhaixka aloktonoak aurkitzea, harlitz, amezti eta garrigen barruan, mailakako erauzte programa ezarri eta gauzatzea, inbaditzailetzat jotzen diren espezieak lehenetsiz. 58. Basoko neurrien programa bat ezartzea ametz arrunten, erkameztien eta garrigen intereseko oinak hautatzeko, oin bakoitzeko kimu anitz sortzen diren egungo egitura gaztea murrizteko asmoz. 59. LIFE "Tremedal" proiektuaren esparruan basoberritutako zonen mantentze egokia egitea (hutsarteak betetzea, osasun inausketak egitea, arbola landareak itotzen dituen belar landaredia kentzea), 9240 eta 9340 habitatak ondo leheneratzea erdiesteko. 60. Baso antolamendurako proiektuak eta planak birdefinitzea helburu berriak barne hartzeko, baita adierazle neurgarriak eta neurri espezifikoak ere, baso biodibertsitatea babesteko, basoen naturaltasuna eta osotasun ekologikoa hobetzeko eta ingurumen zerbitzuak ematen direla bermatzeko asmoz; azken horiek halako moduz definituko dira non, bidezkoa denean, ingurumen kontratuetan edo jabeekin sinatutako beste edozein motatako akordioetan txertatu ahalko diren. 61. Basoko ertzeko berezko espezieak dituzten ekotonoak ezartzea, hala nola gurbeak (<i>Sorbus aucuparia</i> eta <i>S. aria</i>), gereziendoak (<i>Prunus avium</i>), iparraldeko elorri zuria (<i>Crataegus monogyna</i>) eta astigarrrak (<i>Acer campestre</i>), besteak beste, baso masen eta larreen arteko kontaktu zonetan. 62. Intereseko zuhaitz autoktonoak (zahartzen ari direnak, lepatuak, helduegiak, handiak, adartsuak, bigarren mailako espezieetakoak, pizidoen habiak edo kiropteroen babeslekuak dituztenak) kontserbatzea, baita lursail partikularretan ere; kasu horretan, hala badagokio, kontserbazio akordioak sustatuko dira. Arrazoi justifikatuak direla medio baten bat kendu behar bada, hori konpentsatzeko, ahalik eta denbora laburrenean funtzio ekologiko berbera bete ahalko duten zuhaitzak hautatuko dira eta ahalik eta hurbilen ipiniko dira.



Jarduerak	63. Kontserbatuz eta landatuz, dibertsifikazio espezifiko sustatzea basoan eta hango orlan, batez ere zuhaixka formako espezieei dagokienez, adibidez, elorri zuria, masusta, basa arrosa, elorri beltza, basa gereziandoa eta madariondoa, baita atxaparrak ere, <i>Euphydryas aurinia</i> espezieen alde egiteko asmoz.
5.2. Helburu operatiboa	KBEko eta biotopo babestuko basoen populazio egoerari buruzko eta intereseko fauna eta flora espezieen populazioei buruzko ezagutza maila hobetzea.
Jarduerak	64. Europar Batasunaren Intereseko Habitat gisa kalifikatutako basoetan lurrian eta zutik dagoen zur hilaren kantitatea ebaluatzea. 65. Basoen "naturaltasun indize" bat definitu eta kalkulatzeko eta jarraipen planean txertatzea. Indize konposatu horrek gutxienez alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan: - Flora bereizgarriaren dibertsitatea, ugaritasuna, egoera eta joera (katalogo floristikoan oinarrituta). - Basoko hegaztien egoera eta joera. - Koleoptero saproxiliko ugaritasuna eta dibertsitatea. - Basoko kiropteroen ugaritasuna eta dibertsitatea.
5.3. Helburu operatiboa	Basoko harraparien habiagintza areak ezagutu eta babestea.
Jarduerak	66. Erreserba zonak mugatzea 100 m-ko perimetroan basoko harraparien antzemandako habiagintza puntuetatik. 67. Basoko hegazti harraparien bikoteen jarraipen espezifiko egitea lehentasunezko habiagintza areak eta habien produktibitatea zehazteko.

3. KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK**3.1. Biodibertsitateari buruzko ezagutza eta informazioa**

6. Azken helburua	Ahalik eta zehaztasun gehienez ezagutzea KBeko eta biotopo babestuko biodibertsitatearen kontserbazio egoera eta zein den kontserbazio egokirako erreferentziako egoera, bai eta galera edo narriadura eragin dezaketen kausak zein diren zehaztea ere, horrela epe luzerako mantentzea bermatu dezaketen beharrezko neurriak berriro diseinatzeko eta egokitzeke.
6.1. Helburu operatiboa	Kontserbaziorako interesekoak diren habitat guztien kartografia, aldian behin eguneratzen dena, edukitzea, bai eta dibertsitate biologikorako eta osotasun ekologikorako garrantzitsuak diren elementu edo enklabe naturalena edo kulturalena ere.
Jarduerak	68. Aldian behin EUNIS landarediaren mapa eta habitaten mapa eguneratzeko protokoloa zehaztea, bilakaera naturalak edo gizakiaren esku hartzeak eragindako aldaketak bereziki azpimarratuz, bai eta azalera murriztuko eta aurreko kartografiatzen antzeman ez diren habitatei buruzko ezagutzen inguruko hobekuntzak sartzeko ere. 69. Lantarón eta Añana udalerrietako turismo bulegoan edo beste lokal batean dokumentazio zentro bat edukitzea sustatzea; bertan, KBeri, biotopo babestuei eta inguruei buruzko ingurumen informazioa egongo da eta sortutako informazio berria txertatuz joango da. 70. "Basoko fauna eta florarako baliotsuak diren elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario zabal georreferentziatua" sortzea, bai KBerena bai biotopo babestuarena, besteak beste, zuhaitz hiletarako edo zuloak dituztenetarako, ur ibilbide txikietarako, aldi baterako urez beteta dauden lurzoruetarako, heskaletarako, landa bideetarako, bidexketarako, azaleratzeetarako eta interes geologikoko tokietarako, etab. Elementu bakoitza bereizteko, gutxienez, interesa eta koordenatu zehatzak adierazi beharko dira.
6.2. Helburu operatiboa	Babes bereziko araubidean dauden habitaten eta basa espezieen eta funtsezko elementuen edo kudeaketaren xede direnen kontserbazio egoera ezagutzea.
Jarduerak	71. Intereseko habitaten eta basa espezieen kontserbazio egoerari buruzko fitxa egitea, informazioa azkar erabili ahal izateko, Habitatzen Zuzentzailearen 17. artikuluan ezarritako informazio estandarizatuaren berri emateko beharrak betetze aldera.



Jarduerak	72. Basozaintza zerbitzuentzako prestakuntza jarduerak sustatzea, bai administrazioarenak bai KBeko eta biotopo babestuko aldirietan dauden ehiza esparruenak direnentzat, espazio irekietako hegazti espezieen biologiari eta arazoei, egungo egoerari eta agiri honen edukiari buruz dituzten ezagutzak hobetzeko asmoz. 73. Aintzirara heltzeko puntu bat, ingurunera egokitua, aztertzea eta, hala badagokio, gauzatzea, espezieen eta habitaten jarraipen eta kudeaketa jarduketak errazteko helburuarekin.
6.3. Helburu operatiboa	KBeko dibertsitate biologikoaren guztizko balio ekonomikoaren zenbatespen bat edukitzea, baita hango espezieek eta ekosistemek ematen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balioarena ere.
Jarduerak	74. Azterlan bat egitea tresna honetan jasotzen diren neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerak eta, hala badagokio, errenta galera hori konpentsatzeko munta eta mekanismoak zehazteko. 75. KBeko eta biotopo babestuko dibertsitate biologikoaren eta hango ekosistemek ematen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoa aztertzea.
6.4. Helburu operatiboa	KBeko eta inguruko basa faunaren heriotza ez naturalaren gune beltzen mapa bat egitea.
Kudeaketa gidalerroak	D1.- Pozoitze kasuetan jarduteko protokolo bat egitea, baita peritu probak legezko berme guztiekin egiteko gomendioak jasotzen dituen agiri tekniko bat ere.
Jarduerak	76. Urtero, KBetik, biotopo babestutik eta haien ingurutik Martiodako Basa Faunaren Suspertegian sartzen diren basa espezieen erregistroak bilduko dira. 77. Herritarrei, nekazariei, ehiztari elkarteei, sindikatuei eta lurraldean egon ohi diren beste kolektibo batzuei erregistro hori egiten ari dela jakinaraziko zaie, parte har dezaten eta begiztatzen dutena administrazio eskuduneko langileei jakinaraz diezaieten. 78. Eskuratutako informazioaren bidez, gune beltzen mapa egingo da. Aldian behin, mapa eguneratuko da eta neurri zuzentzaileak proposatuko dira, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko. 79. Urtero, basa faunaren heriotza ez naturalen, hartutako prebentziozko neurrien eta horien emaitzen inguruko txostena egingo da eta interesa duten pertsonak eta erakundeak horretara jo ahal izatea bermatuko da.

3.2. Herritarren komunikazioa, heziketa, partaidetza eta kontzientziazioa

7. Azken helburua	KBERi eta biotopo babestuari eragiten dieten erabakiak hartzeko prozesuetan gizarte partaidetza sustatzea eta herritarrak haien kontserbazioan inplikatzea.
7.1. Helburu operatiboa	Aldian behin herritarrei KBEko biodibertsitatearen kontserbazio egoerari buruzko informazio ulergarria zabaltzea, bai eta ingurumen laguntzei, egoera kaltegarriak dakartzaten kausei, horien inguruko politika publikoei eta emaitzei buruzko informazioa ere.
Jarduerak	80. Arabako Foru Aldundiaren web orrialdean KBERi eta biotopo babestuari buruzko atal berezia sortzea eta hura eguneratzeko mekanismoa xedatzea. 81. Floraren eta faunaren, habitaten eta prozesu ekologikoen kontserbazio neurriei eta jarduketei buruzko komunikazio eta informazio programa sortzea, eragina jasan dezaketen edo aktiboki neurri horietan inplika daitezkeen gizarte sektoreentzat. KBERi, biotopo babestuari eta Natura 2000 delakoari buruzko informazio panelak jarriko dira Lantarón, Añana eta Erriberagoitia udalerrietan. 82. KBERi eta haren helburuei buruz herritarrek dituzten ezagutza, jarrera eta jokabidea aztertzeko aldizkako ebaluazioak egitea, herritarrentzako komunikazio, heziketa eta kontzientziazio ekintzak berriro orientatu ahal izateko. 83. Añanako diapiroko eta inguruko balio naturalistikoak, geologikoak, kulturalak eta arkeologikoak zabaltzeko ibilbideak aztertu, diseinatu eta, hala badagokio, trazatzea, horien babesari lehentasuna emanez. 84. Gatz Haranean, iturburu gazien inguruan, zonako flora halofitoa daukan enklabe botaniko bat diseinatu eta sortzea.

3.3. Gobernamentua

8. Azken helburua	Organo publiko eskudun guztien erakunde koordinazioa hobetzea eta ingurumen eta sektore araudi guztia egokitzea, dokumentu honen helburuarekin eta xedeekin eta horiek lortzeko ezartzen dituen jarduera, jarraibide eta arauarekin bat etor dadin.
8.1. Helburu operatiboa	Komite tekniko iraunkor bat sortzea Eusko Jaurilaritzaren Biodibertsitate Zuzendaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Lantarónko, Añanako eta Erriberagoitiko Udalek eta Gatz Harana Fundazioak Caicedo Yusoko aintzirako KBEn eta Añanako diapiroko biotopo babestuan egiten dituzten jarduketak koordinatzeko.
Jarduerak	85. Xedatutako neurriak aplikatzean ahalik eta eraginkortasun handiena erdieste aldera, beharrezkoak diren hitzarmenak eta bestelako koordinazio mekanismoak ezarriko dira foru aldundiko sailekin, Eusko Jaurilaritzarekin, URA Uraren Euskal Agentziarekin, Lantarónko, Añanako eta Erriberagoitiko Udalekin, Gatz Harana Fundazioarekin edo KBEn eskumenak dituzten beste administrazio batzuekin. Informazioa trukatzeko eta koordinatzeko foro bat sortuko da.

3.4. Beste jarduketa transbertsal batzuk

9. Azken helburua	Inguruko beste KBE espazio batzuekin lotura dagoela ziurtatzea.
9.1. Helburu operatiboa	KBEn eta biotopo babestuaren lotura hobetzea.
Kudeaketa gidalerroak	D2.- Lotura ekologikoaren arloan onartutako estrategiak aplikatzea, KBEn Europar Batasunaren intereseko edota lehentasunezko gisa katalogatutako habitaten arteko konexioa bultzatzeko, bai eta hurbil dauden Natura 2000 Sareko beste habitat katalogatu batzuekin eta, orokorrean, mugakide diren eta ingurumen aldetik interesgarriak diren esparruekin ere. Loturari dagokionez interesgarriak diren areak identifikatzea eta horiek kontserbatzeko eta, hala badagokio, hobetzeko jarduketak ezartzea. D3.- KBEn eta biotopo babestuaren barruan nahiz haien inguruan eta hurbileko KBE espazioetan ingurumen interes handia duten eremuak lotzen dituzten heskaien eta baso masa txikien identifikazioa eta kartografia sustatuko dira. Kartografia egin ondoren, heskairik, baso masa txikirik eta jariatze edo erreka ibilbiderik garrantzitsuenak aukeratuko dira eta horiek kontserbatzeko neurriak proposatuko dira.
Jarduerak	86. Lursail pribatuen jabeekiko akordioak sustatzea KBeko, biotopo babestuko eta haren inguruko eremuan lotura ekologikorako interesekoak diren espazioak kontserbatzearen alde egiteko.

Jarduerak

87. Eraginak (higadurak, legar hobi eta harrobi zaharrak, etab.) jasan dituzten areak leheneratzea eta espazio horietan Ingurumena leheneratzea.
88. Inguruko nekazarl guztiei heskalen eta horien kontserbazioaren garrantziaren berri ematea.
89. Kontrolik gabeko isurketak eta bestelako eraginak jasan dituzten areak leheneratuko dira; horretarako, hau barne hartuko da:
- Hondakinak kentzea eta geroago tratatu eta behar bezala kudeatzea.
 - Degradatuta dauden espazioak ingurumen aldetik leheneratzea, ukitutako habitatak lehengoratzeko.



4. JARDUKETEN KOSTUAREN GUTXI GORABEHERAKO ZENBATESPEN EKONOMIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko Legeak —testu bateratua apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen— 22. artikuluan ezartzen duena betetzeko, jarraian programa honetako jarduketa eta neurriei dagozkien zenbatespen ekonomikoak zehaztuko dira.

22.3. artikulua:

Txostenak, bere izapidetzearen hasierako faseetatik hasita, memoria ekonomiko bat izango du, zeinak espresuki jasoko duen 92/43/CE Zuzentarauaren 8. artikuluan jasotako Europar Batasunaren baterako finantzaketari dagokionez beharrezkotzat hartzen denaren zenbatespena.

Jarraian, aipatu den 8. artikuluko hori transkribatuko da, zehazki 1. eta 2. puntuak:

1. Babes bereziko zona izendatu ahal diren eta barnean lehentasunezko habitat naturalak edota lehentasunezko espezieak dituzten lekuei buruzko proposamenak egiten dituzten aldi berean, estatu kideek Batzordeari beren zenbatespenak bidaliko dizkiote, bidezkoa denean, Europar Batasunaren baterako finantzaketari buruz egokitutako jotzen dutenari dagokionez, 6. artikuluko 1. idatz zatian hitzartuta dagoenaren arabera beren betebeharrak bete ahal izateko.

2. Estatu kide bakoitzarekin ados jarrita, baterako finantzaketa eskatzen den leku garrantzitsuetarako, Batzordeak zehaztuko ditu lehentasunezko habitat naturalen kontserbazio egoera mantendu edo leheneratzeko ezinbestekoak diren neurriak, baita neurri horien ondoriozko kostu osoak ere.

2. KUDEATZEKO GIDALEORRAK ETA NEURRIAK, FUNTSEZKO ELEMENTU EDO KONTSERBAZIO XEDEEI BEGIRA**2.1.- Ur gezako habitata eta loturiko espezieak**

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
1. LIFE "Tremedal" proiektuaz hasitako karramarro gorri amerikarra harrapatzeke kanpainak analizatzea eta, hala badagokio, horiekin jarraitzea.		40.000
2. Arrain fauna exotikoa deskastatzeko eta kontrolatzeko kanpainekin jarraitzea.		30.000
3. Arrain-fauna espaziotik erauzteko muturreko ekintzak egiteko aukera aztertzea eta, hala badagokio, gauzatzea.		15.000
4. Aintzirako iparraldeko ezpondaren eboluzio naturala eta horrek aintzira ontzian eta perimetroko bidean duen ondorea behatzea. Hala badagokio, ondorioak txikiagotzeko beharrezkoak diren neurriak aztertzea.		2.000
5. Sedimentuak dragatuz eta intereseko makrofito eta ur flora ugari daudelako hautatutako Arabako beste hezegune batuetako lokatzak eta lohiak ekarri espezie exotiko inbaditzaileak kanporatzeko neurriak hartzeko aukera ebaluatzea eta, hala badagokio, gauzatzea.		10.000
6. Abandonatzen diren eta LIFE "Tremedal" proiektuan naturalizatzen ari diren nekazaritza zonetan, aintzirako hegoaldeko, ekialdeko eta mendealdeko inguruetan, higaduraren aurkako neurriak diseinatzea.		20.000
7. KBEn dagoen nekazaritza ustiategi bakoitzerako birmoldaketa plan bat egitea, abiapuntu egia zorrozkiz analizatuz, lortu nahi diren helburuak definituz eta birmoldatzeko behar den denbora ezarri.		4.000
8. Erlezaintza eta nekazaritza ekologikoa sustatzea, nekazarientzako prestakuntza espezifikoko jardunaldiak, KBeko agroekosistemako laborantza motetara, arazoetara eta aukera zehatzetara egokituak, eginez.		4.000
9. Ustiategi bakoitzerako alderdi espezifikoak dituen lurraldeko kontratu sistema bat ezartzea, nekazaritza eta ingurumen neurri espezifikoak, ingurumen zerbitzuengatik ordainketak eta KBEn eta biotopo babestuan dauden nekazaritza ustiatagietarako pizgarriak ezartzean oinarritua.		40.000
10. Aintzirako errekekako ibilguaren zabalera uretan gora egokitzea, sedimentuak eta solido esekiak atxikitzen dituzten espezieetako landaketarekin.		6.000
11. 7230 habitateko eboluzio libreko zonaren jarraipen aktiboa egitea. Interes gutxiagoko beste espezie edo komunitate batzuen belar-sastrakak kentzea edo horiek deuseztatzea, azalera handitzeke.		6.000

III. eranskina ES2110007 Caicedo Yuso eta Arreko aintzira KBE / Añanako Diapiroko Biotopo Babestua. 2017ko urtarrila

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
		10.000
12.	Aintzirako zona hezeetako kanpoko ohetan eta errekan, ur ibilbideei eta zona hezeei loturik ez dagoen belar, zuhaixka eta zuhaitz landarediaren kontakuntuan, erriberako landaredia leheneratzeko proiektuak diseinatu eta gauzatzea.	20.000
13.	Arreoko zohikaztegi hezeen zonako ingurunean kokatuta dauden nekazaritza lurzatiak lurren jabeekin akordio espezifikokoak sustatzea edo horiek erostea.	8.000
14.	7230 habitateko eboluzio libreko zonako hegoaldeko mugan heskai zuhaitzu arantzadunak landatzea pertsonak zona horretan sartzea galarazteko.	6.000
15.	Seinaleztapen eta informazio sistema optimizatzea, seinaleztapen elementuak ahalik eta gehien murrizteko eta biltzeko asmoz, grafia eta diseinu koherenteak erabiliz.	10.000
16.	Interpretatzeko eta paisalari buruzko seinaleztapen egokia eta osoa amaitzea KBE zeharkatzen duten ibilgailuetarako bideen luzera osoan, GR delakoan eta Aintzirako Andra Mariako aparkalekuan.	20.000
17.	Aintzirako Andra Mariako atsedengunean eta aparkalekuan azpiegitura osagarriak instalatzea, hala nola bizikletetarako aparkalekuak, erabilerei, gomendioei eta tokiaren eta arkeologia hondarren gaineko informazioari buruzko kartelak.	20.000
18.	Aintzirako mendebaldeko muturrean hegazti behatoki txikia teknikoki ebaluatu eta, hala badagokio, gauzatzea.	4.000
19.	Aintzirako erreka neurtzen jarraitzea, bai sarreran bai irteeran.	4.000
20.	Aintziraren mailaren jarraipena egitea.	10.000
21.	Aintzirako arroaren datu meteorologikoak neurtzea.	10.000
22.	Aintziraren parametro fisikoak, kimikoak eta kalitatekoak neurtzea.	4.000
23.	7210* eta 7230 habitaten zonen azterlan botaniko osoa egitea, <i>Ophioglossum vulgatum</i> eta <i>Berula erecta</i> espezieen populazioak eta kontserbazio egoera ere zehaztuz.	3.000
24.	Lezkadiaren eta zohikaztegiaren arteko trantsizio zonetan kontrol lurzatiak kokatzea bi komunitateen arteko harreman ekologikoek denboraren poderioz nola eboluzionatzen duten zehazteko.	12.000
25.	Odonatuei buruzko azterlan espezifikokoak egitea, <i>Coenagrion mercuriale</i> espeziearen arreta berezia jarritz.	



III. eranskina ES2110007 Caicedo Yuso eta Arreko aintzira KBE / Añanako Diapiroko Biotopo Babestua. 2017ko urtarila

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
26. Lezkari arruntan, lezkari karratxinen, tximuben, txiliinporta txikien, murgil handien, uroilanda handien eta beste hegazti espezie batzuen bikoteen aldizkako zentsuak egitea.		4.000
27. Galerla basoaren kalitatea adierazten duten hegazti espezieen (dilandaria, lepitxulia, urretxoria, pizidoak oro har) urteroko zentsuak egitea.		4.000

2.2.- Aintzirako iturburu gazia eta loturiko habitatak eta espezieak

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
28. LIFE "Tremedal" proiektuari gehitutako zonetan gertatzen den landaredi segidaren jarraipena egitea eta, hala badagokio, intereseko habitaten alde egiteko jardutea.		6.000
29. Inbentario floristikoak eta landaredikoak egitea espezieen eta habitaten osiera, banaketa eta dinamika zein 1410 eta 1510* habitaten arteko harremana zehatz-mehatz definitzeko.		12.000

2.3.- Gatz Harana eta loturiko habitatak eta espezieak

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
30. Gatz Haranean flora halofila eta 1510* habitata kontserbatzeko eta hobetzeko proiektu bat diseinatu eta gauzatzea, area interstizialak, iturburu inguruneak eta leheneratu ezin diren larriak aprobetxatuz.		10.000
31. Dona Garazi, El Pico, La Hontana eta Fuentearriba iturburu ingurunea egokitzea, flora halofita edo berezia eta habitatak kontserbatu eta sustatzeko.		52.000
32. La Muela eta Biloria erreketako ibilguak eta flora leheneratzea Gatz Haranaren eremuan.		48.000
33. Gatz Haranari buruzko azterlan botaniko zehatzak eta jarraituak egitea, intereseko espezieak zein lekutan dauden eta nola banatzen diren zehazteko.		18.000
34. Aztertutako putzu edo iturburu ingurune landaredi halofiloaren egoeraren ebaluazio espeziifkoa gehitzea EAEko Hezeguneen Jarraipen Sarearen urteroko jarraipenel.		4.000

III. eranskina ES2110007 Calcedo Yuso eta Arreko aintzira KBE / Añanako Diapiroko Biotopo Babestua. 2017ko urtarila

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
35. Kanpoko identifikazioko seinaleztapen sistema, Gatz Haraneko erabilera publikorako prestatuturiko egungo ibilideari lotua, diseinatzea, flora halofiloeko espezieak identifikatzeko.		6.000
36. Flora halofiloa interpretatzeko elementuak sartzea Gatz Haraneko Interpretazio Zentroan.		6.000
37. Gatz Haraneko mikrobio tapizei eta biofilmei buruzko azterlan espezifikokoak egitea.		4.000
38. Omogabe urtarak interpretatzeko elementuak sartzea Gatz Haraneko Interpretazio Zentroan, baita akuario espezifiko bat diseinatu eta eraikitzea barne.		20.000
39. Interes handieneko omogabe urtarren jarraipen espezifikokoak egitea.		18.000

2.4.- Bazkak eta sastrakak eta loturiko espezieak

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
40. Belar-sastrakak kentzea eta dauden zuhaitz oin guztiak kentzea dauden larreek azpizuhaitzen edo zuhaitzen zonen artean gune txikiak osatzen dituzten zonetan edo sastrakadi bihurtzeko prozesu nabaria erakusten duten larreetan, baita 4030 eta 4090 habitatakit dituzten zonen kontura ere, KBEn.		10.000
41. 6220* eta 6210* habitatetarako eboluzionatzen ari diren zona berrien gainean jarduketak egitea LIFE "Tremedal" proiektuan sartuta dauden eta 6210* habitat leheneratzea xede duten lurzatiak, espezie erruderal eta nitrofiloen epaiteak eta belar-sastrak kentze selektiboak barne hartuta.		10.000
42. Belar landarediko estaldura maila bat duten habitat suspertuko areak lortzea.		10.000
43. KBEko eta biotopo babestuko espazio irekiak mantentzeko larratze estentsiboko sistema bat diseinatzea, masa bakoitzerako egokia den azienta zama analizatuz.		6.000
44. KBEren eta biotopo babestutako larratze larratze planaren arabera egiteko interesa duten abeltzainak bilatzea.		-
45. Larratze estentsiborako egokiak diren egiturak, hala nola edanlekuak, instalatzea.		10.000



III. eranskina ES2110007 Caicedo Yuso eta Arreko aintzira KBE / Añanako Diapiroko Biotopo Babestua. 2017ko urtarila

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
46. Borondatezko ingurumen kontratuak sinatzea larre eta sasarakadi lurzati pribatuak kontserbazio egoera egokian mantentzeko eta horiek egotearen ondoriozko ingurumeneko kanpo efektu positiboak diruz laguntzeko.		12.000
47. Larreekin edo sasarakadiekin lotuta geratzen diren bideen eta errepideen trazadura hobetzeko eta kontserbatzeko jarduketak egiten diren zonetan sasarakadiko ertzeko berezko espezieak dituzten ekotonok ezartzea, hala nola gurbeak (<i>Sorbus domestica</i>), gereziondoak (<i>Prunus avium</i>), iparraldeko elorri zuria (<i>Crataegus monogyna</i>), basa arrosak (<i>Rosa spp.</i>) eta hego-ipuruak (<i>Juniperus oxycedrus</i>).		10.000
48. KBEn 1.500 metroko luzerako nekazaritza lurzatiak mugetan hormak, ertzak eta heskai zuhaiztuak suspertzeko plana gauzatzea, zuhaixka arantzatsuak landatzea eta pausatzeko tokiak jartzea.		4.000
49. 6210*, 4030 eta 4090 habitatetako leheneratze zonetan lurzoru egokien gainean jatorri autoktonoko <i>Cistus crispus</i> espeziea landatzea.		8.000
50. Larreen eta txilardien "kalitate indize" bat definitu eta kalkulatzeko eta jarraipen planean txertatzea.		2.000
51. Larre eta txilardi komunitateen espazio eta denbora bilakaeraren jarraipen protokolo bat ezartzea aireko irudiak analizatzeko eta lurraldearen gaineko kontrola edukitzeko lurzatiak ezarri.		6.000
52. Orkideen azterlana eta zentsua egitea belar eta zuhaixka habitaten zona mugatuetan.		4.000
53. Hegaztien habiagintzari buruzko azterlan espezifikoak egitea KBEko eta biotopo babestuko larre eta txilardietako landaredi zona guztietan, eta nekazaritza zonetan laginak hartzeko ibilbideez osatzea.		4.000
54. Eguneko lepidopteroen jarraipena txertatzea agroekosistemaren egoera ekologikoaren bilakaeraren adierazle gisa.		4.000
55. Intereseko espezieak, esate baterako, orkideak, detektatzeko eta 6210* habitataren, lehentasunezko interesekoaren, azpimota ondo zehazteko helburua duten azterlan botaniko zehatzak egitea.		4.000
56. Nekazaritza lurzati jabeak eta KBEko eta biotopo babestuko auzotarrak eta bisitariak belardi eta txilardi espazioen garrantzi ekologikoaz eta ematen dituzten ingurumen zerbitzuez kontzientziatzeko jarduketak sustatzea.		6.000

2.5.- Quercus generoko bazoak eta loturiko espezieak

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
57. Zuhaitz edo zuhaixka aloktonoak aurkitzea, harizti, amezti eta garrigen barruan, mailakako erauzte programa ezarri eta gauzatzea, inbaditzailetzat jotzen diren espezieak lehenetsiz.		10.000
58. Basoko neurrien programa bat ezartzea ametz arruntan, erkameztien eta garrigen intereseko oinak hautatzeko, oin bakoitzeko kimu anitz sortzen diren egungo egitura gaztea murrizteko asmoz.		10.000
59. LIFE "Tremedal" proiektuaren esparruan basoberritutako zonen mantentze egokia egitea (hutsarteak betetzea, osasun inausketak egitea, arbola landareak itotzen dituen belar landaredia kentzea), 9240 eta 9340 habitatak ondo leheneratzea erdiesteko.		15.000
60. Baso antolamendurako proiektuak eta planak birdefinitzea helburu berriak barne hartzeko, baita adierazle neurgarriak eta neurri espezifikoak ere, baso biodibertsitatea babesteko, basoen naturaltasuna eta osotasun ekologikoa hobetzeko eta ingurumen zerbitzuak ematen direla bermatzeko asmoz; azken horiek halako moduz definituko dira non, bidezkoa denean, ingurumen kontratuetan edo jabeekin sinatutako beste edozein motatako akordioetan txertatu ahaliko diren.		6.000
61. Basoko ertzeko berezko espezieak dituzten ekotonoak ezartzea, hala nola gurbeak (<i>Sorbus aucuparia</i> eta <i>S. aria</i>), gereziondoak (<i>Prunus avium</i>), iparraldeko elorri zuria (<i>Crataegus monogyna</i>) eta astigarra (<i>Acer campestre</i>), besteak beste, baso masen eta larreen arteko kontaktuko zonetan.		10.000
62. Intereseko zuhaitz autoktonak (zahartzen ari direnak, lepatuak, helduegiak, handiak, adartsuak, bigarren mailako espezieetakoak, pizidoen habiak edo kiropteroen babeslekuak dituztenak) kontserbatzea, baita lursail partikularretan ere; kasu horretan, hala badagokio, kontserbazio akordioak sustatuko dira.		10.000
63. Kontserbatuz eta landatuz, dibertsifikazio espezifikoak sustatzea basoan eta hango orlan, batez ere zuhaixka formako espezieei dagokienez, adibidez, elorri zuria, masusta, basa arrosa, elorri beltza, basa gereziondoa eta madariondoa, baita atzaparrak ere, <i>Euphydryas aurinia</i> espezieen alde egiteko asmoz.		15.000
64. Europar Batasunaren Intereseko Habitat gisa kalifikatutako basoetan lurreen eta zutik dagoen zur hilaren kantitatea ebaluatzea.		4.000
65. Basoen "naturaltasun indize" bat definitu eta kalkulatzeko eta jarraipen planean txertatzea.		2.000
66. Erreserba zonak mugatzea 100 m-ko perimetroan basoko harraparien antzemandako habiagintza puntuetatik.		2.000
67. Basoko hegazti harraparien bikoteen jarraipen espezifikoak egitea lehentasunezko habiagintza areak eta habien produktibitatea zehazteko.		15.000



III. eranskina ES2110007 Caicedo Yuso eta Arreko aintzira KBE / Añanako Diapiroko Biotopo Babestua. 2017ko urtarilla

3.- KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK**3.1.- Biodibertsitateari buruzko ezagutza eta informazioa**

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
68. Aldian behin EUNIS landarediaren mapa eta habitaten mapa eguneratzeko protokoloa zehaztea, bilakaera naturalak edo gizakiaren esku hartzeak eragindako aldaketak bereziki azpimarratuz, bai eta azalera murriztuko eta aurreko kartografiatan antzeman ez diren habitatei buruzko ezagutzen inguruko hobekuntzak sartzea ere.		-
69. Dokumentazio zentro bat sustatzea, Lantarón eta Añana udalerrietako turismo bulegoan edo beste lokal batean; bertan, KBEri, biotopo babestuari eta inguruei buruzko ingurumen informazioa egongo da eta sortutako informazio berria txertatuz joango da.		5.000
70. "Basoko fauna eta florarako baliotsuak diren elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario zabal georreferentziatua" sortzea, bai KBErena bai biotopo babestura, besteak beste, zuhaitz hiletarako edo zuloak dituztenetarako, ur ibilbide txikietarako, aldi baterako urez beteta dauden lurzoruetarako, hesketarako, landa bideetarako, bidexketarako, azaleratzeetarako eta interes geologikoko tokietarako, etab.		15.000
71. Intereseko basa habitat eta espezie guztien kontserbazio egoerari buruzko fitxa egitea.		3.000
72. Basozaintza zerbitzuentzako prestakuntza jarduerak sustatzea, bai administrazioarenak bai KBEko eta biotopo babestuko aldirietan dauden ehiza esparruenak direnentzat.		6.000
73. Aintzirara heltzeko puntu bat, ingurunera egokitu, aztertzea eta, hala badagokio, gauzatzea, espezieen eta habitaten jarraipen eta kudeaketa jarduketak errazteko helburuarekin.		40.000
74. Azterlan bat egitea tresna honetan jasotzen diren neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerak eta, hala badagokio, errenta galera hori konpentsatzeko munta eta mekanismoak zehazteko.		6.000
75. KBEko eta biotopo babestuko dibertsitate biologikoaren eta hango ekosistemek ematen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoa aztertzea.		6.000
76. Recopilación anual de los registros de las especies silvestres que ingresen en el Centro de Recuperación de Fauna Silvestre de Martioda procedentes de la ZEC y Biotopo Protegido y de su entorno.		3.000
77. Herritarrei, nekazariei, ehiztari elkartei, sindikatuiei eta lurraldean egon ohi diren beste kolektibo batzuei erregistro hori egiten ari dela jakinaraztea, parte har dezaten eta begiztatzen dutena administrazio eskuduneko langileei jakinaraz diezaleten.		3.000

III. eranskina ES2110007 Calcedo Yuso eta Arreko aintzira KBE / Añanako Diapiroko Biotopo Babestua. 2017ko urtarilla

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
78. Eskuratutako informazioaren bidez gune beltzen mapa egitea. Aldian behin mapa eguneratzea eta neurri zuzentzaileak proposatzea, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko.		4.000
79. Urtero basa faunaren heriotza ez naturalen, hartutako prebentziozko neurrien eta horien emaitzen inguruko txostena egitea eta interesa duten pertsonen eta erakundeek horretara jo ahal izatea bermatzea.		3.000

3.2.- Herritarren komunikazioa, heziketa, partaidetza eta kontzientziakzioa.

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
80. Arabako Foru Aldundiaren web orrialdean KBERi eta biotopo babestuari buruzko atal berezia sortzea eta hura eguneratzeko mekanismoa xedatzea.		-
81. Floraren eta faunaren, habitaten eta prozesu ekologikoen kontsebazio neurri eta jarduketari buruzko komunikazio eta informazio programa sortzea, eragina jasan dezaketen edo aktiboki neurri horietan inplika daitezkeen gizarte sektoreentzat. KBERi, biotopo babestuari eta Natura 2000 delakoari buruzko informazio panelak jarzea Lantarón, Añana eta Erriberagotia udalerrietan.		6.000
82. KBERi eta haren helburuei buruz herritarrek dituzten ezagutza, jarrera eta jokabidea aztertzeke aldiratzeko ebaluazioak egitea, herritarrentzako komunikazio, heziketa eta kontzientziakzio ekintzak berriro orientatu ahal izateko.		6.000
83. Añanako diapiroko eta inguruko balio naturalistikoak, geologikoak, kulturalak eta arkeologikoak zabaltzeko ibilbideak aztertu, diseinatu eta, hala badagokio, trazatzea, horien babesari lehentasuna emanez.		15.000
84. Gatz Haranean, iturburu gazien inguruan, zonako flora halofitoa daukan enklabe botaniko bat diseinatu eta sortzea.		20.000

3.3.- Gobernamentua

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
85. Beharrezkoak diren hitzarmenak eta bestelako koordinazio mekanismoak ezartzea foru aldundiko sallek, Eusko Jaurlaritzarekin, URA Uraren Euskal Agentziarekin, Lantarón, Añanako eta Erriberagotiko Udalekin, Gatz Harana Fundazioarekin edo KBERi eta biotopoan eskumenak dituzten beste administrazio batzuekin. Informazioa trukatzeko eta koordinatzeko foro bat sortzea.		4.000

III. eranskina ES2110007 Caicedo Yuso eta Arreko aintzira KBE / Añanako Diapiroko Biotopo Babestua. 2017ko urtarila

26

3.4.- Beste jarduketa transbertsal batzuk

NEURRIA EDO JARDUERA	KOSTUA (€)
86. Lursail pribatuen jabeekiko akordioak sustatzea KBEko, biotopo babestuko eta haren inguruko eremuan lotura ekologikorako interesekoak diren espazioak kontserbatzearen alde egiteko.	2.000
87. Eraginak (higadurak, legar hobi eta harrobi zaharrak, etab.) jasan dituzten areak leheneratzea eta espazio horietan ingurumena leheneratzea.	15.000
88. Inguruko nekazari guztiei heskaien eta horien kontserbazioaren garrantziaren berri ematea.	4.000
89. Kontrolik gabeko isurketak eta bestelako eraginak jasan dituzten areak leheneratzea.	15.000

JARDUKETEN GUZTIZKO KOSTUA

908.000 euro